

JESUS ETA ELISABETE

1

- Agur, Elisabete, / ene lengusina!
- Agur, nire Jaunaren / Ama Erregina!
- Zu bedeinkatzea dau / Jaunak atsegina
- Pozez saltoka daukat / sabelean sein.

2

- Aingeruak esanda / nator laguntzera
- Nor-ta nire Jaunaren / Ama gaur gurera!
- Biok jarri gaitzan / Haren esanera
- Zoriona heldu jat / zurekin batera.

3

- Goratu daigun Jauna / pozez ta kantari
- Eskerrik beroenak / emonaz Berari.
- Hara, zer egin deutsan / mirabe hutsari!
- Sinistu dozulako / maite zaitu, Mari.

4

- Txikiak maite ditu / ta beti goraldtu
- Harroak bazartu ta / eskutsik bialdu.
- Apalak jaso eta / haundikiak galdu
- Jaunaren mirariak / daiguzan zabaldu.

5

- Guganaino heldu da / bere maitasuna
- Ha zer altxor ederra / biok daukaguna!
- Bere erruki haundiz / da guztiahalduna
- Birjina nahiz atsoa / bardin umeduna.

6

- Egin bedi, Jainkoa, / gugan zure nahia
- Zeuk hasi dozu eta / Zeuk emon amaia.
- Zure zerbitzaritzan / nahi genduke saia
- Ospatu daigun biok / Jaunaren dohaia.